

KADIVKO KORTEAK ETA EUSKALERRIA

Amabi urte-inguruko mutikoa nintzala, orduan irakasten euskuen Edestia ikasi nebanean, ez dakit zergaitik, barruak dar-dar egin eustan eta azterketa aretan emon eusten nire neurri-liburuan agertzen zan "suspensio" bakarra.

Orduan gitxi ulertu neban eta orain barriro ikasi dot arazo garrantzitsu au. Zer jazo zan Kadiz'en urte aretan?

Kadiz'en 1812n.urtean espāñatarren lenengo laterri-lege edo konstituziñoa idatzi zan. Lege nagusi onek aldakuntza asko izan ebazan urrengo urteetan. Zazpi lege nagusi sortu ziran XIX gizaldian ortik.

Antxe aiyertu ziran lenengoz, eta gura kalterako, alkarren aurrean espāñatarren lege nagusia ta gure Lege Zarrak. Apur bat aurrerago Napoleon'ek pentsakera bardiña eukan: Lege Zarrak kendu eta lege nagusi oi ren aurrean guztiok bardiñak garala adierazo. An agertu zan espāñatarren "nasionaltasuna" lenengoz eta gaur arte bizi irauten dau: España da naziñoa (ez da-un esan "aberria", ez da-ta) eta España bakarrik. Ba-ziran an Diputatu edo aldun euskaldunak, baiña epel jokatu eben. Onik atera geinken bakarra Bizkai'ko Egia izan zan. Onek argi eskatu eban Bizkai'ko Lege ZaiYak laterri-lege orren barrura sartu bear zirala.

Asieran, maltzurkeriz, diño laterri-lege orrek Lege Zarrak ez dagozela lege nagusi orren aurka, baiña fueroak kentzeko bide argia zan. Euskalerriko erakundeak zalantza aundiz artu eben lege nagusi ori.

Lege nagusi ori espāñatarrentzat aurrerakoia zan: Inkisiziñoa kendu eban, irarkolaren askatasuna aldarrikatu, lur geldiak "desamortizatu", erri-lurrak lurbakoai eta soldadu izanai emon. irarkolaren askatasuna aldarrikatu, agintaritzza errian dagoala ziurtatu tez erregearen gan), laterrian diran iru almenak ondo bereiztu (Monteskieu'ren bidean)... orrexegaitik ez eban iraun bost urte baiño. Gero 1876.urteko lege nagusiak agintaritzza ez dau errian ezarten, erregeagan eta korteetan baiño.

1836n.urtean, karlostarren lenengo guda amaitzeko Bergara'ko besarkadea izan zanean, iru probintziak (Kadiz'ko berbea) lege zarrak izango dabezela, baiña España'ko Laterri-Legearen banan esan eban. Beste maltztukeri bat, lege zarrak kentzeko bide hat. Eta

Karlos'tar euskalzale gizajoak atsipetu egin ebazan. Orregaitik emon ebazan curen izkilluak.

"Binomio" au bideratzeko, Naparroa'n 1841n.urteko agustuaren 16n.eguneko legearen bidez, konpondu eben azaroa, baiña naparrak orduan galdu ebazan legeak egiteko eskubidea, España'ri zergak ez ordaintzekoa, eta "ley paccionada" ori zala-ta España-barrura sartu ziran, naizta ekonomi-eskubide batzuk zaindu. Baiña ez zan egin olako itunik Bizkaia, Gipuzkoa ta Araba'gaz: 1841n.urteko urrillaren 29n.egunean, Espartero'k ateratako aginduaren bidez, Gipuzkoa zigortuta geratu zan. la foru guztiak kendu ebazan, zergen eta soldaduskaren arazoa izan ezik. Aduanak itxas-ertzera aldatu ziran eta "pase ford" edo forubaimena kendu zan. 1876n.urteko Laterri-Legeak estu ziurtatu eban Laterriaren batasuna eta urte beratan Canobas'ek lege zar guzriak kendu ebazan. 1878n.urtean, otsaillaren 28'n onartu zan iru "probintzientzat" ekonoini-ituna.

Kadiz'ko korteetan izan zan ba, lenengoz gure eskualdeak España'ko probintziak zirala aldarrikatu zan sasoia. Nik ba-dakit guri Edestia azaldu euskun Lardizabal'dar Emeterio'k olako arazoa agertu ez euskuna. Bera zan irakasle lez "suspensio" merezi ebana.

Laster jaioko da Esukalerrian gizon zur bat, edestia ondo ekian gizon bat, "Euskaldumen aberria Euzkadi da" aldarrikatuko eban eta lege zarren bidea erjarentzat eriotzarako bidea zala esango eban Arana ta Goiri'tar Sabin.

OLAZAR eta URIBE'tar Martin'ek

ZUGAZTIAK ERRIAK BAINO LENAGOKOAK DIRA: BASAMORTUAK ERRIEN OSTEAN DATOZ. ZUGAZTIAK GALTZEA GIZONENTZAK ZIGORRA DA.

Chateaubriand

ZUGATZAK BOTA EZKERO, URA TA TXORIAK BADOAZ. ZUGATZAK SARTU EZKERO. URA TA TXORIAK EKARRI EGITEN DIRA.

R. Codorniu

ZUGAZTIAK DIRA GIZAKIAI EGINDAKO EMOITZIK ONENA.

Zizeron